

LABORAL Kutxaren doako appa, 2 zerbitzu eskaintzen dituena: Bizum eta Mugikor bidezko ordainketa.

1

Deskargatu LK Pay appa.

Google play

App Store

2

Sartzeko, erabili Online Bankaren gakoak (erabiltzailea eta sarbide-gakoa).

3

Egin bat aplikazioak eskaintzen dizkizun 2 zerbitzuekin. Horretarako, ezinbestekoa da LK-k zure mugikor-zenbakia izatea.



Uki nazazu! BIZUM erabiltzeko

Uki nazazu! mugikorrak ordaintzeko

BIZUM

Mugikorraren zenbakiarekin (kontu-zenbakirik gabe) dirua bidali eta eskatzeko aukera ematen duen zerbitzua.

LK Payren zerbitzu hau Androiderako eta iOSerako dago erabilgarri.

1 KONTUA LOTZEA

Lotu zure kontu korrantea Bizumi, dirua jaso ahal izateko. Sartzan zaren lehen aldiaren soilik egin beharko duzu hori! Ondoren, nahi duzunean aldatzeko aukera izango duzu, aplikazioan bertan.

2 BIZUM EGITEA

Dirua bidaltzea
Dirua eskatzea

1. Ireki zure LK Pay aplikazioa eta aukeratu zer eragiketara egin nahi duzun: dirua bidalia ala eskatu. Orain, aukeratu hartzailea, zure kontaktuen artean. BIZUM dutenak identifikatuta agertuko dira. Gainerakoek alta emateko gonbidapena jasoko dute, eta, alta emandakoan, berehala jasoko dute dirua.
2. Bete bidali/eskatu nahi duzun zenbatekoa eta kontzeptua. Datu hori berez agertuko da beteta, baina badago aldatzerik.
3. Bukatzeko, bidalketa berretsi, eta kito! Zenbatekoa 20 €-tik gorakoa bada, SMSa jasoko duzu, sartu beharreko gakoarekin.

MUGIKOR BIDEZKO ORDAINKETA

Saltokietan txartelarekin bezalaxe mugikorrekin ordaintzeko aukera ematen duen zerbitzua. Zerbitzu hau NFC antena duten Android mugikorretarako dago erabilgarri.

1 PRESTATU MUGIKORRA-REKIN ORDAINTEKO

1. Aukeratu eragiketarako egiteko txartela.

Lehen aldiaren soilik! Ondoren, aldatzeko aukera izango duzu, aplikazioan bertan.

2 ORDAINTEKO UNEAN

1. Egiaztatu NFC antena piztuta duzula.


2. Desblokeatu mugikorra eta hurbildu saltokiko terminalera.

Ez dago aplikazioan sartu beharrik. **ERRAZ-ERRAZA!**

Ordainketa 20 €-tik gorakoa bada, lotutako txartelaren PIN zenbakia sartu beharko duzu terminalean. Ordaindu ostean, egindako erosketaren jakinarazpena jasoko duzu mugikorrean.

EZIN EROSOAGOA!

TXARTELAREN DOAKO KOPIA ERAMANGO DUZU MUGIKORREAN. ORAIN, MUGIKORRA DA ZURE TXARTELA.



OHIKO GALDERAK

BADABIL BANKU EZBERDINETAKO BEZEROEN ARTEAN?

Bai. Bizumek funtzionatzen du banku ezberdinetako bezeroen artean ere. Hortaz, edozein kontaktuk jasoko du dirua berehala, berdin diolarik zein bankutako bezeroa den.

Ikusi zer bankuk duten Bizum

NOLA JAKINGO DUT NIRE LAGUNAK BIZUM DUEN ALA EZ?

Bizum egiterakoan, Bizum ikonoarekin markatuta agertuko dira zerbitzuari atxikita dauden kontaktuak. Bizumik ez badu, mezu bat bidaliko zaio, bat egiteko gonbidapenarekin. Bizumekin bat egiten duen momentuan bertan jasoko du dirua. Baina, bat egiten ez badu, eragiketara bertan behera geratuko da denbora bat iragandakoan.

ZERGATIK ERABILI MUGIKOR BIDEZKO ORDAINKETA?

#MugikorraBadaramazuDiruaDaramazu

Gaur egun, eskura izaten dugu beti mugikorra; beraz, beti izango duzu edozein ordainketa egiteko aukera, txartela atera gabe. Eta larritasunen batetik ere atera zaitzake!

Gainera, hobeto kontrolatzen duzu ordaindutakoa; izan ere, PUSH jakinarazpen eta SMS bana jasoko dituzu, mugikorrekin egindako ordainketa bakoitzeko.

